

Negu Gorriak taldearen  aurkako demanda

# Atzera bota dute Galindoren kereila

Epaiak ez du atzeman teniente koronelaren kontrako irainik 'Ustelkeria' kantan

**D**onostiako epaitegiak atzera bota du Enrique Rodriguez Galindo teniente koronelak Negu Gorriak-en kontra jarritako demanda. Goardia Zibileko buruak 'Ustelkeria' kantan bere ustez ohorerako, gizabanakoaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideei egiten zitzaizkion kalteengatik kereilatu zen rock taldearen aurka.

JOSE MARI PASTOR / DONOSTIA

Hilaren 3an datatua den epaiak ez du funtsezko arrazoirik atzeman Galindo teniente koronelaren kereila kontuan hartzeko. Demanda musika taldearen 'Gure Jarrera' diskoan ageri den 'Ustelkeria' kantak eragin zuen. Disko hau 1991ko apirilean argitaratu zen. Kasua Donostiako laugarren zenbakiko Lehen Instantsiako Epaitegian eraman du Iñigo Suarez Odriozola magistratuak. Jue honek sinatutako epaiak kereilaren historia, garapen eta oinarrien berri ematen du eta azkenean berau ezesteko baliatu diren arrazoiak aipatzen ditu.


Horren arabera, Galindo teniente koronelaren abokatuak demanda bat jarri zuen Donostiako epaitegi horretan 1993ko maiatzaren 25ean ohorerako, gizabanakoaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako bere defuntudaren eskubideak aldarrikatuz. Auzibidean Galindoren ohorearen kontrakotzat jotzen zuen abokatuak 'Ustelkeria' kantaren hitzak.

Kereila honekin, abokatuak «diskoaren ondoko argitalpenetan demanda sortu duen kanta ez sartzeko eta aipatutako abestia ezein kantalditan ez jotzeko» kondena egotea nahi zien, epaiaren bidez, Fermin Muguruza, Iñigo Muguruza, Kaki Arkarazo, Mikel Anestesia, Mikel Bap, Jon Maia, Angel G. Katarain eta Esan Ozenki Records-i. Galindoren ordezkariak 15 milioi pezeta ere exigitzen zituen «eragindako kalte moralen indemnitazio gisa». Nabarmen-tzekoa da auzipetutako bat —Jon Maia— 'Gure jarrera' diskoak zenbait kantaren hitzen egilea dela, baina ez zuela idatzi 'Ustelkeria' abestia.

## GIZARTE ZABALKUNDEAREN ISLADA

Suarez Odriozola berri ematen duen autoan adierazten duenez, 'Gure jarrera' diskoak sortu eta kaleratu zen garaian —1991ko apirilean— islada handia izan zuen komunikabideetan 'Navajas txostena' deritzon informea. Donostiako fiskalak aurkeztutako txostenak hainbat ondorio eragin zituen arlo desberdinetan, haien artean «Estatuko fiskal nagusiaren agerraldi Diputatuen Kongresuko Justizia Batzordearen aurrean talde sozialistak eta PPK eskatuta, Intxaurrondoko koarteleko Goardia Zibileko buruek narkotrafiko eta kontrabando jardueretan izan zitzaizkiren balizko erantzukizunez mintzatuko». Datu hau, epailearen esanetan, 'Navajas txostenak' gizartearen izan zuen zabalkundearen ondorio bat besterik ez da.

Jarraian aipatzen denez, 'Ustelkeria' kantaren testuak «zu-



Epaiak ez du iraingarritzat jo Negu Gorriak-en kanta. MARISOL RAMIREZ

zeneko erreferentzia markoa» du EGUNKARIAK 1991. urteko martxoaren 12an argitaratu artikuluan. 'Interviú' aldizkariaren informazioan oinarritutako kazetariak testu honek «Estatu mailan joera ideologiko desberdinetako komunikabideek aieratutako informazio periodistiko mordoa bildu baizik ez du egiten», epaiaren ageri denez. Hori dela eta, EGUNKARIAK testua «beste medio horietan azalduko al-bisteetan oinarritzen da» eta ez

du «inputaziorik jartzen auzi-jartzailearen —Galindo— kontra». Epaiak «ia erabatekotzat» jo du «kantaren hitzen eta EGUNKARIAN argitaratutako testuaren artean den konkordantzia».

Faktore horiez jabeturik honako ondorio hauek azaldu ditu Suarez Odriozola juleak: «a) Kantaren testuan gizartearen interesea sortzen duen gaia da nagusi, hau da, narkotrafikoa. b) Auzi-jartzaileak, kantaren testuan aipatzen denak, proiektio publiko

garrantzitsua du. c) Abestiko esamoldeak eta jitea bera —hauen gordintza onartuta ere— Estatuko komunikabide ugari kaleratutako informazioan oinarrituta daude eta zuzeneko erreferentzia dute honetan, kantaren ildo kritikoa areagotu eta narkotrafikoaren arazoa konpontzeko dituzten tesiak sustengatzeko».

Gogoeta horiek Rodriguez Galindok jarritako demanda atzera botatzeko balio izan diote epaileari, nahiz eta berak errekonoiztu «askatasun ideologikoak ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearekiko duen erlazioaren mugak zehazteko dagoen zailtasuna».

## NORBERAREN IRUDIAREN ERABILERA

Epaiak, era berean, desestimatu egin du Galindoren irudiaren erabilera- ren kontra jarritako demanda. Goardia Zibilaren teniente koronelaren argazkia 'Gure jarrera' diskoaren barruko folioetan agertzen zen modu lausotuan.

Donostiako epaileak agertu duenez, ez dago norberaren irudiaren eskubideak ez du galaraziko kargu publikoa, ospe handiko lanbidea edo proiektio publiko handia duten pertsonen irudien kaptazio edo erreproduktzioa, baldin eta irudi hau ekitaldi publikoan edo jendearek itretako lekuetan hartzen bada.

Suarez Odriozolaren arabera, «koordeniloan ageri den muntaiak auzi-jartzailearen argazki lausotua da (...) eta ezin da esan intimitate uen batean ateratuko argazkia denik, ezta auzi-jartzailearen barragarri uzten duenik ere».

## Adierazpen askatasuna, hirea dek garaipena!!

### NEGU GORRIAK

ESAN OZENKI RECORDS

**N**egu gorria ez ezik, urte beltza ere bazetorkigula komentatzen genuen taldekideok 94. urtearen atzetan. Izan ere, Galindoren erasoaldiaren ondoren, taldekide ditugun Mikel Bap eta Mikel Anestesiaren soldadutzarekiko jarrera intsumisoak sorturiko arazoei taldearen aurteko xedeak kinka larriarri jarri bait dituzte.

Hala ere, urtea hasi eta hona hemen lehen berri ona: Galindo koronela aurkeztu zuen gure aurkako denuntzia bertan behera utzi du epaileak. Datorren astean jakingo dugu Galindoren abokatuak errekturorik aurkeztzen duten ala ez. Auziak aurrera jarraituko ez balu, guretzat izugarriko garaipena litzateke. Ezin dugu ordea, halakorik aldarrikatu errekturorik izango den jakin arte. Hala ere, oso inportantea deritzogu epaileak bere konklusioetan azaldu duen arrazoitze moduari. Hain zuzen ere, Castells gure abokatuak defentsarako erabilitako argudio berberetan oi-

*Donostiako epaitegiak Negu Gorriak taldearen aurka Enrique Rodriguez Galindo teniente koronelak jarri zuen demanda atzera bota ondoren, beren iritzia eman diezagutela eskatu diegu musika taldeari berari eta honen ekoitze den Esan Ozenki Records disketxari. Hona hemen berariak bidali diguten artikulua:*

narritzen bait da epailea ere, bere sententzia ematerakoan, adierazpen artistikoaren askatasunaren babespean, alegia. Hau da, gaur egungo artistak, gizarte testu-inguru zehatz batean bizi bada, zilekko du bertako hainbat erreferentzia, adibide, lekuko eta iturri erabiltzea errealitate sozial horren ispilu izateko, gizarte horren kulturaren zati esanguratsu izan nahi badu behintzat.

Guzti honek borta ezinezko eskubide baten babesean beharko luke izan. Hala uste genuen gure izekio udan 'Borreroak

Baditu Milak Aurpegi' gure hirugarren diskoa argitaratu eta Europako bira prestatzen ari ginenean. Halako batean izugarriko txostena jaso genuen guturiko bakoitzak Galindoren denuntziaren berri emanez eta aurreko diskoaren 'Ustelkeria' kantarean kontuak eskatuz. Dakizueenez, 15.000.000 pezeta eta kanta diskotik kentzea eta zuzenean ez jotzea ziren bere eskakizunak. Ez ginen gu bakarrak izan harri eta lur geratu ginenak. European zehar gertatzen zela, zera zioskuten musika-talde lagunek: «Baina nola da posible! Zein herritan

bizi zarete! Horrelakorik oraindik gertatzen al da?». Halaxe, beraien laguntza eskaini ziguten Mano Negra, Urban Dance Squad, Holly Rollers eta beste musikari pila batek Galindoren auzia zertan zen entzun ondoren, emaitzari okerrenera ere suertatuz gero edozein eratako ekintzetan parte hartzeko prest azalduz. Oraingoz behintzat gauzak ondo ateratu dira eta errege magoek ikazte Intxaurrondo aldean utzi dute, 'Aitapuntakoaren' amaiezinezko paga xtrei beste bat gehituz. Azken hau mikatz xamarra egingo bazaio ere.

Gure balorazio orokorra guztiz positiboa da beraz, gure larritan sufritu dugun sormen askatasunaren aurkako erasoak hutsen gelditu bait da oraingoa bertatik indarberrituak ateragarriak. Oinarriko adierazpen eskubideak lehen txanpa irabazi du auzi honetan. Izan bedi azkena ere guztion onerako.



Negu Gorriak taldearen aurkako demanda



## EGUNKARIAko albistean oinarritua

J. M. P. / DONOSTIA

Íñigo Suarez Odriozola Donostiako epailearen deliberamenduak erlazionatu egin ditu EUSKALDUNON EGUNKARIAk kaleratutako informazioa —goian— eta 'Ustelkeria' kanta, Rodríguez Galindok taldearen aurka jarritako kereila baztertzeko.

Epaian ageri denez, «kantaren testuak zuzeneko erreferentzi markoa du EGUNKARIAk 1991. urteko martxoaren 12ko aleko bosgarren orrian argitaratu zuen artikulu». Jarraian esaten denez, abestia X —Fermín Muguruza— eta K —Kaki Arkarazo— lagunen arteko elkarrizketak osatzen du. Honen arabera, «demandan gehien nabarmentzen

den estrofa artikuluko horren erreferentzia hutsa, ia literala da».

Epailearen ustez, artikuluko horrek 'Interviú' aldizkariak kaleratutako informazioa du oinarritut: «'Interviú' aldizkariak aste honetako alean argitara eman duenez...». 'Ustelkeria' kantak «Intxaurrendoko komandante eta borroka antiterroristako buru gisa» agertarazten du Galindo, baina identifikazio hau jadanik egin du EGUNKARIAko testu periodistikoak, beste medio batzuetan zabalduakoa errepikatut besterik egin ez duenak.

Epaiazen arabera, EGUNKARIAN agertutako notizia «premisia da narkotrafikoa arazoari konponbide bat proposatzeko: legalizazioa».

## Ustelkeria

Enrique Rodríguez Galindo teniente koronelaren demanda, Negu Gorriak taldearen 'Gure Jarrera' diskoak 'Ustelkeria' kantak eragin zuen. Hauze da, kanta horren testua, oso-osorik:

- X — Eh! Kaki! Enteratu haiz?  
K — Ze tripakomin duk, egon, hago lasai. Lurrikara bezala hator, berriz ere orain.  
X — Ez al duk irakurri EGUNKARIAK dakarrena? Francisco Rodríguez Galindo, teniente koronelarena?  
K — Zein? Goardia Zibila? Intxaurrendoko koarteleko komandantea? Terrorismoaren kontrako arduradun nagusietakoa?  
— JADA, EZ NAU EZERK HARRITZEN.  
X — Baita ondoko ustelkeriaren «Arduradun Nagusia»; talde antiterroristak baliatuz, narkotrafikoko operazioak egiten zizkian.  
K — Orduan, Irungo kokaina desagertaren kasua «Bidasoa Operazioa» delakoa ziur erlazionaturik egongo dela.  
X — Jakina baietz. Duela bi urte maiztzen, Goardia Zibila tona inguru kokaina harrapatu eta komisaldegian 150 kilo desagertu hituen.  
K — Tori ustelkeria, txo! Badakik, interes ekonomikoak eta interes politikoak elkartzu gero, gureak egin dik.  
— JADA, EZ NAU EZERK HARRITZEN.  
X — Eh! Kaki! Badakik zer egongo nukeen nik? Ba, droga legalizatu.  
K — Beno, Amerikan «ley seca» garaian, inoiz baino mafia gehiago sortu hituen.  
X — Inoiz baino fultsutzapen gehiago eta gainera inoiz baino gehiago edan zian jendeak.  
K — Legalizazioa izanez gero, lehenengo arazoa bukatuko duk. Eta ez duk gutxi.  
— JADA, EZ NAU EZERK HARRITZEN.

Un tribunal dicta que el tema musical es de interés social y debe prevalecer la libertad de expresión

## El grupo de rock Negu Gorriak, absuelto de un delito contra el honor de Rodríguez Galindo

La canción «Podredumbre» implica al teniente coronel en el narcotráfico

I. CAMACHO

BILBAO.— El grupo de rock radical vasco Negu Gorriak ha sido absuelto por la Audiencia de San Sebastián de un presunto delito contra el derecho al honor y la imagen del teniente coronel de la Guardia Civil Enrique Rodríguez Galindo, destinado en el cuartel de Intxaurrendoko.

El máximo responsable de la lucha antiterrorista en Euskadi presentó una demanda el pasado mes de mayo contra la banda de rock por entender que la canción «Podredumbre» (Ustelkeria, en original) es una grave intromisión ilegítima en su honor.

El tema musical utiliza informaciones periodísticas que relaciona al teniente coronel con el narcotráfico. La estrofa motivo de querrela canta: «No has leído lo que trae el Egunkaria? ¿Lo del teniente coronel Rodríguez Galindo? ¿Quién? ¿El guardia civil? ¿El comandante del cuartel de Intxaurrendoko? ¿Uno de los principales responsables del antiterrorismo? Y, además, el principal responsable de la podredumbre que te voy a contar ahora. Sirviéndose de los grupos antiterroristas, realizaba operaciones de narcotráfico».

**LIBERTAD DE EXPRESIÓN.**— El juzgado de primera instancia número 4 de la capital gipuzkoana entiende que la libertad de expresión merece prevalecer sobre una posible intromisión al honor, porque en la letra de la canción «no se formula una afirmación imputatoria o difamatoria respecto del demandante, sino que reproduce un texto periodístico el cual a su vez recoge, en sus líneas esenciales, las valoraciones o conjeturas de un amplio número de publicaciones».

También desestima la petición de que no se reedite la canción, así como que el grupo se abstenga de interpretar el tema en sus actuaciones. Rechaza, asimismo, la solicitud de quince millones de pesetas de indemnización.

El fallo argumenta en sus fundamentos jurídicos que ha de interpretarse los hechos «en relación con las circunstancias espe-



Uno de los miembros del grupo Negu Gorriak. / EL MUNDO



El teniente coronel Rodríguez Galindo. / EL MUNDO

cíficas y coetáneas existentes al tiempo de sacar al mercado discográfico el LP «Gure Jarrera», las cuales están relacionadas directamente con el texto teligioso». Coincide así con la defensa de Miguel de Castells y María José Aguado.

La sala recuerda que la Fiscalía de San Sebastián incoó diligencias informativas, resultando el denominado «Informe Navajas», elaborado por el fiscal jefe de esa Audiencia. Reseña la sentencia que en ese informe se reflejaba la posible existencia de un foco de corrupción en la Comandancia de la Guardia Civil de Intxaurrendoko, consistente en «la participación directa en operaciones de tráfico de estupefacientes y contrabando en las que podrían estar implicados, entre otros, el demandante», Rodríguez Galindo.

El fallo se apoya en que fueron numerosos los periódicos, —y cita un gran número de ellos— de la más variada línea ideológica, que reflejaron el «informe Navajas». Recuerda que el teniente coronel reconoció como ciertos y publicados los artículos.

**TEMA DE INTERÉS.**— Sobre esta base, el Tribunal interpreta judicial-

mente el texto de la canción y lo desglosa para incidir que es una referencia al artículo publicado por el diario Egunkaria en torno a los hechos, informados a través de medios de comunicación de ámbito estatal.

La conclusión de la sala es que la canción «tiene por objeto un tema de interés social relevante, cual es el narcotráfico; el demandante designado es una proyección pública relevante; las expresiones —aun admitiendo su crudeza— son una referencia directa y se han inspirado de forma inmediata en la información publicada por amplios sectores de los medios de comunicación estatal y, asimismo, se constituyen como base para fortalecer la línea crítica de la canción y presupuesto de apoyo a la tesis que se sostiene para solucionar el problema del narcotráfico».

El tribunal estima que la imagen del teniente coronel no ha sido dañada porque desarrolla una trayectoria pública que ha sido «exhaustivamente» mostrada y que la foto utilizada en el disco no le ridiculiza, ni ha sido obtenida en la intimidad. Contra el dictamen, cabe interponer un recurso de apelación en el plazo de cinco días.

## PAIS VASCO

### Desestimada la demanda de Galindo contra Negu Gorriak

DV. SAN SEBASTIÁN

El juzgado de Instrucción número 4 de San Sebastián ha desestimado la querrela presentada por Enrique Rodríguez Galindo contra el grupo musical Negu Gorriak por la canción «Ustelkeria», del disco

«Gure Jarrera», editado en abril de 1991.

La canción, cuya letra se basa en una conversación telefónica que relata una información publicada en 'Euskaldunon Egunkaria', incurrió, según Galindo, en un delito contra el derecho al honor, a la intimidad y a la propia imagen.

Para el juez, la letra de la canción contiene «palabras contundentes y que incorporan un significado ácido y mordaz, pero legítimo dentro del campo de la libertad de

lógica» y afirma que «ha de interpretarse en relación con las circunstancias específicas existentes al tiempo de sacar el LP al mercado discográfico, debido al eco social que adquirió el denominado 'Informe Navajas'. Asimismo, el magistrado señala «la equivalencia entre la expresión contenida en la canción y el texto periodístico, ya que ambos tienen como objeto un tema de interés social relevante como es el narcotráfico».